



GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOAREN LOGOA BERRITZEKO LEHIAKETA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak deialdia egiten du, lehiaketa bidez federazioa egokien ordezkatzeko duen logotipo berria hautatzeko.

Hona lehiaketa arautuko duten OINARRIAK:

1. Helburua: logotipo baten diseinua, zeinak xede duen Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa ordezkatzeko duen irudia izatea.

Era berean, 2025ean federazioak 100 urte betetzen dituen, bigarren logotipo bat diseinatu beharko da, aurrekoan oinarrituta eta 100 urte betetze horri nolabaiteko aipamena egingo dionak.

2. Parte hartzaileak: lehiaketa publiko zabalari zuzendua dago.

Edozein pertsona naturalek parte hartu ahal izango du deialdi honetan, nazionalitate edo bizilekuagatik inongo ezberdintasunik egin gabe, ezta bestelako mugarik ere, oinarriek jasotakoetatik haratago. Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu.

3. Proposamena:

a) Diseinuak originala eta argitara gabea izan beharko du. Logoa norberaren sormenaren eta lanaren fruitu dela, eta beste pertsonen jabego intelektualak urratu gabe egin dela ziurtatu beharko da.

b) Lanak honako ezaugarriak asebetetzen dituen logotipoa izan beharko du: gure federazioaren iragana eta batez ere etorkizuna uztartu eta gaztetu egiten gaituena, erakargarria eta euskal pilotaren aniztasuna islatzen duena.

c) Parte hartzaileek gorde beharko dituzte bidalitako materialaren kopiak, hauek ez baitira itzuliko.

d) Behin logo proposamena bidalita, ezingo da atzera egin.



4. Entregatu beharreko materiala: diseinuak modu honetan entregatu beharko dira:

- ✓ Paperean: bi logotipoak koloreetan eta txuri beltzean.
- ✓ CD formatuan edo USB memoria batean: logotipoa koloreetan eta txuri beltzean, biak BMP, GIF, JPG edo TIF formatu digitalean, ahalik eta bereizmen edo kalitate handiena erabiltzea aholkatzen delarik.
- ✓ Logotipoekin batera, nahi izanez gero, azalpen labur bat aurkeztu ahal izango da.

5. Lanen aurkezpena: lanak aurkezteko epea zabalik egongo da **2024ko azaroaren 11tik, 2024ko azaroaren 29ra arte.**

Lanak DIN A-4ko kartazal batean entregatuko dira, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa jarrita. Barrenean, kartazal itxi batean (txikiagoa) parte hartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira (izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa).

Lanak honako helbidera bidaliko dira: Anoeta pasealekua 5, Kirol Etxea, 20014 Donostia (Gipuzkoa) edo bertako harreran utzi.

6. Epaimahaia eta ebazpena: epaimahaia federazioaren zuzendaritzak izendatutako batzorde batek osatuko du. Epaimahaiko ezein kidek ezingo du parte hartu lehiakide gisa.

Epaimahaiaren ebazpena apelaezina izango da, irabazleari jakinarazpena mezu elektronikoz bidez helaraziko zaio eta publiko egingo da www.gipuzkoapilota.eus atarian abenduaren 16tik aurrera.

Ez da epaimahaiaren akordioen aurkako helegiterik onartuko, oinarriok urratu izanaren ziurtasunik ez baldin badago behintzat.

Epaimahaiak bere gain du saria emateke uztea eta lehiaketa berria deitu edota oinarri berriak zehazteko aukera, bertara lan berriak aurkeztu beharko lirartekeelarik.

7. Jabego eskubideak:

a) Lehiaketako garaileak egin eta aurkeztutako lanaren eskubide guztiak Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren gain lagatzen ditu.



Horregatik, federazioa grafikoaren eta lanaren izenari erator dakizkioken eskubide ororen jabea izango da, hala nola, bestelako eskubideena zein “copyright”-arena. Era berean, manipulazio, edizio, erakusketa zein erreprodukzio eskubideak ere lagatzen zaizkio federazioari.

b) Lan irabazlearen jabegoa, erabilpena eta eskubideak Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioari bakarrik egokituko zaizkio.

c) Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak aurkeztutako lanen gaineko eskubide guztiak izango ditu.

d) Irabazleak uko egiten dio, inongo mugarik gabe, diseinuaren gaineko eskubide eta jabego orori.

e) Irabazleak erantzukizuna beregain hartuko du, osoki, lanaren originaltasunari, antzekotasunei edo kopia partzialei buruz, hirugarren pertsonak jarri ahal izango lituzketen erreklamazioen aurrean.

8. Saria: sari bakarra ezartzen da, seiehun eurokoa (600 €). Aldi berean, ahalik eta zabalkunde handiena emango zaio elkarteren web orrialdean eta federazioaren eskura dauden beste baliabideen bitartez.

9. Oinarriak onartzea: lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar oinarriok eta epaimahaiaren ebazpena onartzea. Aurreikusita ez dagoen edozein kasu, epaimahaiak berak argitu beharko du, bere erabakiaren berri parte hartzaile bakoitzari jakinaraziz.